



Bilboko Instrukzioko 8 zk.ko Epaitegiko lekualdatze derrigortuak

JAZek arau-hauste larria egin du, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arabera.

Instrukzioko 8 zk.ko Epaitegiko langileek nork bere izenean aurkeztutako demandeen inguruan auzitegiek zer erabakiko zain garela, aurtengo martxoan Bizkaiko Langileen Batzordeak egindako salaketari erantzunez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren erabakia jaso dugu.

Esandako erabakiak FROGATUTAKO EGITATEAK atalean honelaxe dio: “consta acreditado que por parte de la Dirección de la Administración de Justicia del Gobierno Vasco se recogieron a través de grabaciones de audio datos de carácter personal de empleados de Justicia sin consentimiento de los afectados.” Eta gero, ZUZENBIDE-OINARRIetako batean, sakonago: “... las personas entrevistadas consintieron ser grabadas en el entendimiento de que aquello que dijese en ningún caso iba a ser vinculado con su persona, ni saldría de la esfera de los participantes en cada entrevista. Sin la pretendida confidencialidad de la entrevista, los trabajadores no se hubieran expresado con total libertad y no hubieran facilitado numerosa información que era desconocida por la Administración.”

Bada, lerro horiek guztiek ondo baino hobeto laburbiltzen dute ebazpenaren arrazoiketa. Alegazioetan Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak bere jokabidea justifikatzen du legezotasunaren izenean; hala ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aintzat hartzeko argudiotzat ez du jo. Erakundeak harrিতa ikusi du administrazioak defentsa-gabezia birritan alegatu duela Bulegoak ez diolako froga bat onartu honako honengatik: “una prueba que no guarda ninguna conexión con la conducta infractora imputada.”

Horiek horrela, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak irizten dio: “viciado el consentimiento prestado por las personas entrevistadas, vulnerando el tratamiento de la información así obtenida la normativa en materia de protección de datos.” Eta horren ondorioz ondokoa dio: “Se trata de una conducta que integra claramente la infracción tipificada como grave en el art. 22.3 c) de la Ley 2/2004, en relación con el artículo 6.1 del LOPD.” Aldi berean errekeritu dio “a la Dirección de la Administración de Justicia del Gobierno Vasco para que adopte las medidas necesarias para evitar

nuevas vulneraciones del precepto infringido.” Ebazpena Arartekoari ere jakinaraziko diotela jasotzen da.

Gauzak horrela, osatu berri den Justizia Sailak erabakiko du errekurritu ala ez ebazpen bat zeinak aurreko ekipoaren jokaera tipikotzat jo daitekeen portaera bat zigortzen baitu.

Pozten gara Datuak Babesteko Bulegoaren erabakiaz. **LAB**en jakin bagenekien Jon Arturo Uriartek eta bere ekipoak legez kontrako zerbait egina zutela; dena den, hilabete batzuk pasatu ziren zenbait grabazioen kopia bat gure esku izan arte eta, orduan bai, Bulegoak eskatu bezala, frogatzat aurkeztu genuen.

Gustatuko litzaiguke ebazpen hau baliagarri izatea arduradun berriek Justizia Administrazio Zuzendaritzaren jardunean -lehengo langile tekniko eta administrari berberak osatzen dute- irizpide berriak markatzeko eta hemendik aurrera zentzuz eta elkarrizketarako nahiaz joka dezaten. Izan ere, albo batean utzi ditzatela auzitegi-tara edo, kasu honetan bezala, bestelako erakunde babesle-tara joanarazten gaituzten esperimenduak. Labur-labur esanda, tratu normala eskatzen dugu, besterik ez.

2016ko abenduaren 09